

Lehendakari jauna, gotzain jauna, ahaldun andrea, sailburuorde jauna, agintariak, lagunak, eskerrik asko Labayru Fundazioaren Plan Estrategikoaren aurkezpenera etorri zarielako.

1977an sortu zanetik, Labayru Ikastegiak izena eta ospea izan dau euskal kulturaren sailean. Hasi-hasieratik, hutsune bat bete eban euskeraz alfabetatzeko eta euskerea irakasteko, eta itaurrekoa eta bidegilea izan da egiteko horretan. Horregaz batera, ardurea hartu eban arbasoen usadioak eta ekanduak jaso, ikertu eta zabalduteko, sarritan gure aitita-amomak eta gurasoak iturri izan dirala. Aitatutekoa da euskal gaietan osatu dauen biblioteka zabala, dagoan eta garrantzitsuenetariko bat. Eta hortxe dagoz kaleratu dauzan argitalpenak, euskerea zabalduteko edo etnografia eskura iminteko izan diranak.

Baina heldu dira sasoiak non Labayru Ikastegiak erronka handiai erantzun behar izan deutesien. Batetik, belaunaldi aldaketa bizi izan dogu barruan: Ander Manterolak eta Gurutzi Arregik, orain arte Labayruren arduradunak eta irudia izan diranek, bidea emon deutsee belaunaldi barrikoai. Bestetik, gizartean balore aldaketak gabilz ikusten, eta horrek eragina dauka kultura arloan eta euskeraren landan. Eta bizi izaten gabilzan krisi ekonomikoak Labayru bere hartu dau bere zurrumbiloan.

Ikuspegi hori aurrean eukita, eta Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatuta, pentsau genduan momentua zala hausnarketa sakona egiteko: zer garan eta zer izan gura dogun, non gagozan eta nora joan gura dogun. Eta horretarako plan estrategiko bat egin dogu. Bertan 10 helburu estrategiko imini dira, honako hiru sail nagusi honeetan batuta:

- Kultura arloan, erreferentziako erakunde sendoa izatea, kultura eta euskera gaietan autortua, bizkaieran jarraibidea.
- Egungo gizarteari begira, jarrera zabala izatea, inguruko eta belaunaldi barrien beharretara egokitua.
- Eta gestinoaren aldetik, antolaketa eta lan egiteko makinaria eraginkorra izatea.

Helburu estrategikook aurrera atarateko, lehentasunezko zortzi egitasmo zehaztu dira, besteak beste: merkataritza-plana jorratu; komunikazio-plana egin, eta irudia eta web-orria barrizta; produktuak erakargarriagoak egin; gizartean presentzia sendotu eta zabaldu; barruko beharginen prestakuntza jagon; eta antolaketarako eta gestinorako sistema hobetu.

Hasi gara plan estrategikoan zehaztutako bideak landuten eta hasi gara emaitzak jasoten. Badakigu plan estrategikoa ezartzeak behar handia eskatuten dauena, baina

pozik oratu deutsagu erronkari. Eta orain, ekitaldi honen bidez, zuokaz gura dogu partekatu gure ilusinoa.

En los últimos tiempos, el Instituto Labayru ha tenido que hacer frente a una serie de circunstancias que le han hecho recapacitar. Se ha producido un cambio generacional en los responsables de la Institución: Ander Manterola y Gurutzi Arregi han cedido sus responsabilidades de gestión a una nueva generación, aunque siempre serán parte de la imagen de Labayru. Por otra parte, en la sociedad se está dando un cambio de valores, situación que afecta a la forma de ver la cultura vasca. Y la crisis económica que padecemos también ha marcado y condicionado la gestión y actividades del Instituto.

Ha llegado el momento de decidir el camino que queremos seguir, y para ello, animados por la Diputación Foral de Bizkaia, hemos realizado un plan estratégico. En él se han marcado 10 objetivos, agrupados en tres ámbitos:

- Ser una institución referente y de prestigio en el ámbito cultural, con liderazgo en el euskera bizkaino.
- Mostrar una actitud adaptada y abierta a las necesidades del entorno y de las nuevas generaciones.
- Mantener una organización eficiente y una gestión eficaz.

Llevamos trabajando en ello desde el otoño, y estamos esperanzados con los primeros frutos. Sabemos que el proceso va a requerir mucho esfuerzo, pero nos hemos propuesto implantar los métodos y alcanzar los objetivos marcados en el Plan. Y con este acto, queremos compartir con vosotros nuestra ilusión.

Eskerrik asko.